

Noqua!!


H A M A B O S T E K A R I A

1998ko abenduaren 11a. III. urtea

Usurbil, 56. Zenbakia



ETXEAN NAHI
DITUGU!



Euskal presoak
etxeratu nahian



Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Joani!**
Abenduaren 10ean 25 urte bete zenituen urte askotarako. Etxekoan partez muxu haundi-haundi bat.



Zorionak **Sergio!**
Abenduaren 11an gure etxeko gizonak 13 urte bete-ko ditu. Etxekoan partez muxu haundi bat eta hain jator jarraitu.



Aupa **Tomas**, zorionak! Hi ere 24 zenbaki horretara iritsi haiz. Zer uste huan, ez hintzela iritsiko edo? Abenduaren 10ean ondo pasa genianez, zorionak berriz. Hire lagunak.



Zorionak **Enrique!** Urteak kontatzen aspertu bazara ere, gu ez gara ahaztu abenduaren 9tik urte bat gehiago duzula. Segi beti bezain umoretsu. Muxu bana etxekoan partez.



Zorionak **Usua!** Abenduaren 7an 12 urte bete zenituen. Azkenean iritsi dira! Jarraitu beti bezain goxo eta irribarretsu. Muxu haundi bat. Etxekoak.



Zorionak **Ana Delgado!**
Abenduaren 4an ederki pasako zenuen ezta? Bueno, aspertuko zinen 43 aldiz belarritik tiratzean.



Zorionak **Maribel!**
Abenduaren 3an egin zenituen urteak. Egun hori ondo pasa zenuelakoan, muxu bat famili guztiaren partez.



Zorionak **Aintzane Egizabal!**
Azaroaren 28an zure urtebetetze eguna zela? ez gara haztu ez, zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partez.



Gabonetako aginaldorik izango al dugu aurten ere? Bestela badakizu **Jexux**, abenduaren 18an urte pilo bat egiten dituzunez bada-kizu zer ekarri. Zorionak etxekoan partez



Abenduaren 8an etxeko txikiak 2 urte beteko dizkigu. Zenbat beteko ote ditu etxeko zaharrenak Santo Tomas egunean? Zorionak eta muxuak etxekoan partez. Ez ahaztu Adarraga e?



Azaroaren 23an izan zen **Nikolasen** urtebetetze eguna eta bere biloba **Xabier Izetak**, abenduaren 10ean bete zituen 11 urte. Zorionak etxekoan partez eta muxu potoloa Xabier zuk dakizun horien partez



Berandu xamar bada ere, abenduaren 5eko partez zorionak **Iñaki**. Abenduaren 10ean berriz ea hire kontura zerbait hartzen dinagun **Zalao**. Zorionak bie! Kuadrilatarrak.

Norbaitek familiak, lagunak, aldame-nekoak, ezkondu berriak... zoriondu nahi baditu hemen du dohainik zoriontze-ko aukera. Argazki bat eta testuan jarri nahi dena besterik ez duzu behar.

Hurrengo alea:
abenduaren 23a
Agurrak ekartzeko epea:
abenduaren 18a

Hildakoak



1998-11-23
Gregorio Arrillaga
Mayoz
76 urte
Zubieta

1998-11-25
Juan Antonio Aburuza
Makazaga
69 urte
Kaleberri

Bai, esan!

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiardo kiroldegia 37 24 98
- Zumarte musika eskola 37 15 94
- Etumeta euskaltegia 37 20 01

- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Gure Pakea egoitza 37 32 28
- Gure Elkarte egoitza 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren informazioa 47 09 76
- **Noaua!** aldizkaria 36 03 21

Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte
Kale Nagusia, 37
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com
Web orria:
http://www.jalgi.com.topagunea/noaua/

Zuzendaria

Olatz Altuna

Kazetariak

Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai,
Josu Aranberri, Garikoitz Udabe

Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino,
Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,
Zalao Arnaiz, Maribi Arrospide,
Agurtzane Solabarrieta, Joseba
Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi,
Olatz Leoz, Mikel Bengoetxea,
Agustin Esnaola, Izaskun Zubiria,
Olatz Goenaga, Izaro Aizpuru,
Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko
Manterola eta Joxe Torregaray.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino.

Erredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose
Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu Aranberri,
Ainhoa Azpiroz eta Inaxio Usarralde.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz
Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre eta Aintzane Aizpuru

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpuru

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Sukaldaria

Joxe Mari Sarasola

Tirada: 2.300 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Euskara epaitua

Ohiana Lizaso**Euskal Herrian Euskarazeko kidea**

XXI. mendearen atarian gaude eta Euskal Herriak ez du oraindik lortu bere buruaren jabe izatea. Herri bat gara baina ez zaizkigu onartzen berez dagozkigun eskubideak. Estatu zapaltzaileek abertzaletasuna ilundu eta Euskal Herriaren aldeko borroka gaitzetsi egin nahi dute. Oraindik ere, hizkuntza arrotzen itzalek ez diote euskarari hazten uzten. Horren lekuko dugu epaitegien kasua.

Euskal Herrian Euskarazeko kide hauen delitu bakarra euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzea, orain hogeitaz kalez kale barreiatutako "Bai euskarari" garrasia epaitegietara luzatzea izan da. Euskal Herrian, euskararen herria, inongo lotsarik gabe euskaldunen hizkuntza eskubideak bortxatuz justizia omen delakoa partitzeko gai sentitzen diren horiei, hau Euskal Herria dela gogoraraztea, eta euskaldunak bigarren mailako pertsonak izateko prest ez gaudela azaltzea da zortzi euskaldun hauen pekatua.

Nahiz eta legea gure alde izan, euskaldunok errepresioa jasan behar dugu; hainbeste isun, hainbeste epaiketa, hainbeste gartzela zigor, hainbeste... eta delitu bakarra? Legeak esaten duena betearaztea eskatzea. Oraindik ere, gure

eskubideak errespetatu daitezkeen eskatuz gabiltza, baina eskubideak ez dira eskatzen, eskubideak ez dira ogi apur baten modura eskatzen, eskubideak onartu egiten dira.

Puntu asko eta askori buruz idazten jarraituko genuke euskaldunon egoera epaitegietan azaldu beharko bagenu. Justizia Administrazio euskaldun bat, herri-tar eleanitzen hizkuntza eskubideak bermatuko dituen eta epaituak izango diren EHEkide guztien aldarrikapena. Horretarako ofizialtasun erreal bat bideratuko duen normalkuntza plan bat ezinbestekoa da, une honetan eta zintotasun osoz epaitegietan euskaraz jarduteko dauden lege zein oztopoak gainditu eta euskaraz bizitzeko aukera emango duena. Bide horretan errepresioa ez da bidea, euskaldunak zigortzea ez da bidea.

Epaiketa goizeko 9:30etan izango da Donostiako epaitegian eta bertan egingo den kontzentraziara dei egiten dizuegu. Bertan bi Usurbildar epaituko dituzte eta ez gaude hauek bakarrik uzteko prest. Usurbildarren erantzuna, azken epaiketan, ez zen batere ona izan, abenduaren 16koa beste bat izango delakon gaude.

Tarte honetatik barkamena eskatu nahi diogu **Jose Antonio Piñasi**. 54. alean, **Zer Irizten** tartean "**Larrialdi deia Ertameriketatik**" izenburupean eta beraren izen eta argazkiarekin testu bat argitaratu genuen bere baimenik gabe. Testu hura ez zen berak egin, eta berak ezer jakin gabe argitaratu genuen. Barkamen honek egindako kaltea konponduko ez badu ere, berriz horrelakorik ez dela gertatuko konpromezua hartzen dugu.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaureko ordutegia

16.30-18,30

astegunetan



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herria!



Merkataritza euskaldun-tze prozesua

Merkatarion artean euskara bultzatzeko kanpainari ekin zitzaion orain ez asko. Akordatzen al zara "zenbat da 100 pzta.?", "zenbat 1.000 pzta"... kartelek zernolako jakinmina sortarazi ziguten? Bada, kartel hauekin hasi zen merkataritzaren euskaratzeko prozesua.

Burutapen hau ona iruditzen zaidanez, orain merkatariorik gure aldetik zerbait jarri beharko genukeela iruditzen zait.

Egia esan euskal hizkuntza ez dago orain bere gorenean, nahiz eta aldi okerragoak pasa dituen, baina gure aldetik bultzadaxo bat emateak ez lioke, ziur, kalterik ekarriko.

Bakoitzak ahal duen neurrian lagundu beharko luke, bistan denez, bere esku dagoenaren arabera, Honela bidezkoa iruditzen zait denda izenak (harategia, arraindegia, ileapaindegia, iturgintza, optika, aseguruak...) euskaraz jartzea, norberaren esku baitago.

Bestalde, prezioak, beherapen edo merkealdi txartelak, ordutegiak... jartzea merkatarion esku

dauden gauzak dira eta egokiaraz litzateke euskarazkoak izatea.

Gainontzeko herrietan ikusi izan dut, dagoeneko, euskaratze prozesu hau, eta Euskal Herrian euskaraz irakurtzeak poza ematen du; niri gutxienez bai.

Txaro Artze

Udarregin azaltzen diren pintadak direla eta

Ez da lehen aldia, ikastolara etortzerakoan, lurlean zein hormetan izugarriko pintadak aurkitzen ditugula, zenbaitetan ikasle batzuren kontra, besteetan irakasleei zuzendutakoak eta azken honetan, berriz, bie. Hori dela eta, ekin-tza honen aurkako jarrera azaldu nahi dugu denon aurrean.

Hasteko, esan beharra dago, sortutako kaltea ez dela bakarrik pintadetan inplikaturik daudenean iristen, baizik eta beraien senitarteko eta lagun kontsideratzen garenongana ere bai.

Bestalde, normala den bezala, gure artean susmo txarrak eta mesfidantzak piztu dira: "Hau ote egilea", "Beste hau ote laguntzaillea?", "Honek bultzatua ote

du?"... Eta honek guztiak giro hotz eta desegoki bat sortzen du.


Irakasleen aldetik ere, inpresio bera jasotzen dugu, guran duten konfidantza galtzen joan dira, nahiz eta pintada horien egileak, behin baino gehiagotan, ikastolatik kanpokoak izan. Horren ondorio zuzena jasaten dugu.

Azkenik, ez dugu uste ikastolako txikientzat ere eredu zuzena denik, arazo baten aurrean aurpegi eman eta inplikatutak beraien artean hitz egiten ikasi beharrean, azpikokuan ikasten baitute.

Ondorio gisa, esan dezakegu jarrera hori (pintadak egitearena) ez zaigula konponbide egokiena iruditzen, kaltetuak asko izaten baitira eta konpondu, berriz, ez da ezer konpontzen.

DBHko ikasleen gehiengoa

Irakurle, kexarik baduzu, herritarrei zerbait esan nahi badiezu tarte hau da zuretzat aproposa. Atal honetako gutunak ezinez sinatu daitezkeen arrez Noaua!k beti jakin behar du nork idatzi duen. Gutunak Noaua!ra bidali edo bertako buzoian utzi. Eskutitzak orrialde erdikoak izan behar dute, 1200 karaktere ingurukoak.




Udarregi ikastolako hormak pintadez beteta agertu ziren pasa den azaroaren 23an. Irakasle eta hauen familiarterokak hitz zatarrez iraintzen zituzten bertan. Ez da lehenengo aldia, irailean ere kolore desberdina hartu baitzuten ikastolako hormek. Pintadak agertu ziren horman mural bat egin dute orain.

P A T R I

J A T E T X E A

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



**TXIRIBOGA
TABERNA**

**pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak**

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

N • U
Ileapaindegia

MISTOA

*Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura*

**Aritzeta 2- 2 1.A
Telefona: 943 36 19 51**



Nieves Aranburu

Usurbilen jaio, hazi, hezi eta bizitakoa da, usurbildar peto-petoa. 62 urte ditu eta Kale Nagusiko kioskoan eserita hor egoten da goizero-goizero egunkariak saltzen.



Zure adinagatik, orain Noaua! Kultur Elkartearen egoitza den honetan ikasi zenuen ezta?

Bai, hortxe bertan., nire eskolak horkoak dira. Ahizpa ezkondu arte ikasi nuen, 14 urte arte. 10 urte zaharragoa den ahizpak ezkondu egin behar zuela esan eta negar egin nuen. Nik ikasten jarraitu nahi nuen, oso gustora etortzen nintzen eskolara.

Asko ikasten al zenuten?

Orduan ez zuten agiririk ematen, ikasten zenuenarekin gelditzen zinen eta kitto. Adin guztietako neska eta mutilak ibiltzen ginen, 60 ume inguru klase batean. Orain bezala mailaz maila jarri bagintuzte, seguru orain baino gehiago jakingogenukeela.

14 urterekin ikasteari utzi zenion. Eta gero zer?

14 urterekin etxean gelditu nintzen. Mojetan eskulanak ikasten ibili nintzen eta josten berriz, Mari Socorrorenean ikasi nuen.

Tailerrean ere ibilia omen zara.

Michelinen hiru urte egin nituen, ezkondu arteko urteak. Ez zen lan txarra, baina "jefea" eta "enkargatua" txarrak ziren, esker txarrekoak.

Egunkari saltzen noiz hasi zinen ba?

7-8 urte? Hamar agian... Mendiko elkarteko gazteek udalaren laguntzarekin egin zuten kioskoa eta nire anai Inaxioren izenean jarri zuten. Harek istripu haundia izan zuen eta geroztik Edurne eta biok egon izan gara egunkariak saltzen.

Zer moduzko lana da egunkariak saltzea?

Lan honetan inork ez dizu agintzen eta saltzen

ez baldin bada ez duzu irabazten, baina beti uzten du zerbait eta... aguanta. Gainerantzean luze xamar egiten da.

Zer ordutan irekitzen duzu kioskoa?

Astegunetan 6.30etan irekitzen dut eta astebukaeran 7.30etan. Lehendabiziko lana egunkariak okindegira eramatea da eta gero, "kieta", bertan eserita, jendea etorri arte. Gero 12.30etan ixten dut.

Goizeko lana da zurea beraz?

Bai, goizeko 6.30etatik 12.30etara. Hori bai, jai eta aste, udara eta negu, hor ez dago oporrik. Oporrak nahi izan ezkerro beste bati ordaindu behar.

Jende asko ezagutuko zenuen egunkariak saltzen ezta?

Jendea ezagutu bai, baina kontu kontari gelditzen direnak ez dira asko. Goiz guztia eguraldiaren kontuarekin pasatzen da, eguraldia gora eta eguraldia behera. Gainerantzean, jendea egunkaria erostera etortzen da, ez hitz egitera.

Orain dela gutxi Miamin izan zarela esan didate.

Bai, halaxe da. Aurten Jerusalem-era, Saloura eta Miamira joan naiz. Hiru usurbildar joan ginen ameriketara eta "bonba" pasa genuen. Bost egun egin genituen Miamin eta oso leku polita zen, hondartza, uraren hotzberoa, kolorea... zoragarria izan zen. Gero astebeteko kruzeroa egin genuen Noruegako itsasuntzi batean. Oso ondo pasa genuen.

Josu Aranberri

Telesforo Ardoak

Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25
Tlf. 943 36 12 20



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 943 36 22 55



ARRAINDEGIA PELLO

Arizeta Kalea, 1
Tlf 943 36 21 64
USURBIL

TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Platanoak bazterrak zikinduz

Erroizpe Elkarte aurrean dauden platanoak udaran estimazio izugarria dute ematen duten itzalagatik. Aldiz, urte sasoi honetan gehienok pentsatzen dugu, "A ze pakea emango luketen desagertuko balira". Izan ere, bazter guztiak



eta aparkatutako kotxeen goikaldeak horbelez gainezka uzten dituzte, inguru guztiak zikinduz. Herriko langileak pasatzen dira astero bere makina-txoarekin bazterrak txukuntzeko asmotan, baina alferrik, berak joan orduko dena, berriz, horbelez estalita izaten baitugu. Laister etorriko al dira urtero bezala udaleko langileak platanoak inautera! Badirudi aurtent zertxobait atzeratu direla, ez zitzaien ahaztuko, ezta?

Bestalde, eguraldi txarra badugu ere, anguleroak hor dabilta beren ahaleginetan. Hala ere, ez dirudi angula asko harrapatzen dutenik. Hori bai,

azaroaren azken astearen egun batean izugarrizko harrapaketak izan omen ziren. Gau batean hamaika kilo angula eskuratu dituenik ba omen da. Baina ia egunero anguletan jardun eta ezer harrapatu gabe dabiltzanak ere badira. Baita angula erruz harrapatu zen egun horretan, etxean geratu eta gero beste anguleroen izugarrizko harrapaketa desesperatuta ikusi zuenik ere.

Badakizue, anguletan ere zoezer nahi duenak egunero egunero aritu behar du, angulak nondik joko duen antzematen oso zaila baita, eta egunero joatea oso gogorra.

KALEBERRI


Ines Kamino



Bateko adreilua, besteko harria...

Badirudi azkenaldian adreiluak eta porlana direla protagonista gure herrian. Izan ere, herriko txoko ugari berritzen ari dira aspaldi honetan, denak urte berriari ongietorria emateko dotore-dotore jazten.

Oraingoan frontoi ondoko etxe baten txanda da. Etxea berritzeko lanetan dabilta eta babeserako hesiak ezarri dituzte. Egia esan, hesi hauek gure paisaiaren zati bihurtuko dira azkenean; lehenengo frontoia berritzeko lanak izan ziren, gero elizarekin izan genituen lanak eta oraingoan, berriz, frontoi ondoko etxe horrekin.



Beheraxeago joan behar dugu orain, Markesaren etxera, hain zuzen ere. Etxe hau ederra bezain zaharra dela gauza jakina da. Kanpotik itxura sendoa eman dezakeen arren, ez dago hain irmo helduta. Aurreko astean susto txiki bat izan genuen, izan ere Markesaren etxeko balkoi batetik harri pusketa bat erori zen. Eskerrak inor ez zuen azpian harrapatu!

Hau ikusirik, segurtasun neurriak hartu beharko lirateke, jende ugari ibiltzen baita inguru horietan. Eta azken egunetan egindago euriarekin higidura haundiagoa baita.

ATXEGALDE

Errefuxiatuak Euskal Herrian libre

Zaloa Arnaiz



Azken bolada honetan, prentsan, irratian zein telebistan "euskal presoak Euskal Herrira" aldarrikapenak inoiz ez bezalako oihartzuna izan du. Egoera aldatzen ari den seinale. Bazegoen premia, handia gainera.

Bestalde, Senideak-ek, errefuxiatuek Euskal Herrian bizitzeko duten eskubidea gogoratu zuen azaroaren 28an Bilbon burututako manifestazioan. Milaka eta milaka pertsona elkartu ziren Bilbon, izan ere, errefuxiatuen egoera ezagutzeko ez daukagu urrutira joan beharrik.

Gauzak normaltzen joan daitezzen guztion partehartzea ezinbestekoa da. Ildo honetatik, abenduaren 31an Usurbilen manifestazio ixil bat antolatu da. Alderdi guztien adostasunarekin antolatu da ekitaldi hau eta guztion partehartzea garrantzitsua izango da.

Beraz, urteari amaiera modu egokian eman eta ea 99rako euskal errefuxiatu

guztiak gure artean ditugun. Izan ere, guztiok zerbait eman beharko dugu gutxi batzuk dena eman ez dezaten.



KALEZAR

Hotza nagusi Kalezarko txokoetan

Ainara Uribe



Ez dakit, bada, udazken parte honetan Kalezarren ezer esateko ba ote dagoen. Txoko honetara ere, Euskal Herriko beste guztietara bezala, hotza, turroiak eta mazapanak baino lehenago iritsi da. Goiz samar aukera-aukeran.

Hotza dela eta, jendeak etxean geratzeko joera izaten du eta gure auzoan ere berdina gertatzen da. Kalezar beti da leku lasaia, baina are gehiago negu partean, auzotarrak hartzen modura hibernatzen dugunean. Plazan haur gutxiago ikusten da jolasean, Olarriondo eta Puntapax arteko parkean bezalaxe.

Paseatzeko txokoetan ibiltari gutxi dabil, Anaerrekana eta Arratzainen kasu. Urtaro honetan oso politak daude inguru horietako paisaiak, zuhaitzak

biluztu egiten dira eta lur guztia hostoz estaltzen da.

Ah! ia ahaztu egin zait, kamio generaletik Kalezarko parkeraino dihoazen eskailerei ja jarri



diete barandila berria, baita dotore jarri ere grisez pintatuta.

Beno, ia animatzen zareten udazkenak utzitako paisaietatik bueltatxo bat ematen.

SANTUENEA

Ingemarren zabalkuntza

Alfontso Vidal



Azken hilabeteetan euri ugari egin du inguru hauetan. Hotza ere iritsi da eta honekin batera izotza. Hala ere, Santuenea bidean ez dugu arazorik izan. Bide berriarekin oraingoz konpondu dira

lehen genituen arazoak. Gogoratzen al dituzue bidean osatzen ziren putzu haiek? Eta oinezkoen espaloain zeuden zuloak?

Ba orain lasaiago ibili daiteke Santuenearako bidean.

Ingemarrera dozen kamioiak gainera, ez dira bide honetatik pasatzen, nahiz eta batzuetan kamioen bat konturatu gabe okerreko bidetik aurrera joan. Nolabait buelta eman eta bere bidetik sartu behar izaten dute.

Bide berria egitean zaharra Ingemarrentzat izango zela gauza jakina zen, baina orain dela gutxi eman dio behin betirako jabetza. Honela, kamioiak pisatzeko makinaria eta beste hainbat gauza jarri dituzte gure bide zaharrean.

Atallu aldean, berriz, traste haundi bat ekarri zuten eta orain inguru guztia itxitura batekin itxi dute. Aparkalekuaren ondoan sare berdea aurkituko duzu orain.

Pixkanaka-pixkanaka aldatzen ari da Santueneako kanpokaldea, nahiz eta batzuek Santuenea zubian hasten dela esan.



URDAIAGA

Mercedes-ak belardian

Alazne Begiristain



Neguan sartzekotan gaude baina badirudi aurreratu egin zaigula, azkenaldi honetan behintzat hori erakutsi digu eguraldiak. Azken egun hauetan izan ditugun haizeek zuhaitz guztiak larrubizirik utzi dituzte eta paisaia benetan ederrak azaltzen ditu gure auzoak.

Baina gaurko honetan ez dut eguraldiaz hitz egin behar, agian honetan ere eguraldiak zerikusirik izan badezake ere. Lehengo asteazkenean, abenduaren 2an, izan zen "istripu-txoaz" hitz egin behar dizuet. Itxura denez, Mercedes bat gelditu zen azeki-zuloan sartu-

ta. Mercedes guztien modura izugarriko kotxea omen zen, dotorea bezain handia ez baitzuen nahiko leku errepidean. Gurpil bakarra gelditu omen zitzaion errepide gainean eta beste hirurak belardian, grua bat etorri zen arte. Azkenean sustoa besterik ez zen izan.

Azkenik, nahiz eta hemen askotan aipatu izan den, berriro ere aipatu nahi nuke buzoiek oso egoe-

ra txarrean jarraitzen dutela eta ez dirudiela hauek konpontzeko inongo asmorik dagoenik.



AGINAGA

Egingo dugu festa Aginagan

Iratxe Begiristain



Gure auzoko festak urrian izaten dira, San Praixku jaiak festa seinlatuak izaten baitira gure agendan. Aurten eguraldi txarra eta Usurbilen egin zen Intsumiso eguna zela eta, jai giroa aurreko urteetako baina hotzagoa izan da.

Orain, berriz, abendua iritsi da, eta hotz haundiagoa egiten duenean Aginagako plaza ingurua berotu egingo da hil honen 11tik 13ra. "Egingo dugu" kanpainaren barruan festa mundiala antolatu dute eta ez da ekitaldirik faltako.

Abenduaren 11an herri afa-riarekin emango zaio hasiera hiru eguneko festari. Ondoren,

Izotz eta Akelarre taldeak tartekatuz dantzaldia izango da.

Larunbat arratsaldean gezurra eta egia noiz esaten den jakitea ez da erraza izango mus txapelketan. Sariak ez dira nolanhikoak: txapelak, mariskadak, txuletak...

Ilunabarrean, berriz, Morau eta Folckoreren kontzertua izango da bertzen hasteko eta Aitor Furundarena eta Sakanako trikitalariekin trikiti festa ondoren.

Igandean, eta festarekin amaitzeko,

sokatira saioaren ondoren, bertsolarien txanda izango da. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Unai Agirre, Jokin Sorozabal, Mikel Mendizabal eta Sebastian Lizasoren bertsoak entzun ahal izango dira Aginagako zine aretoan.



ZUBIETA

Igeldo herria eginez

Mikel Bengoetxea



Horixe izan zen joandako igandean bertan egin zen festaren lema. Laugarren urtemuga betetzen zen desanexioaren erreferenduma egin zenetik. Erreferendum horretan Igeldoarrek alde bozkatu arren, zailtasun ugari aurkitu dituzte bidean eta ezinezkoa zaie oraingoz xede hori lortzea.

Festa horren barruan mahain-guru bat izan zen eta bertan, herri txikitako gestiorako zenbait eredu aurkeztu ziren. Xabier Arregik, Zubietako Herri Batzarraren alkateak, Zubietak duen sistemaren berri eman zuen, antzekotasun haundiak baitaude Zubietan eta Igeldoren artean; biak beste udal administrazio baten

barruan dauden izaera bereziko "auzoak" dira.

Egitarauaren barruan zubietako gaztetxoaren eskutik joko garbi erakusketa bat ere baze- goen, baina eguraldi txarra zela eta ezinezkoa suertatu zitzaizen gure gaztetxoei bere abileziak igeldoarrei erakustea. Ondoren bazkari oparo batekin eman zioten amaiera festari, trikitalari eta guzti.

Beste hari batetik segituz, aipa dezagun Zubietan sortzen ari den Jon Tapia euskal presoaren aldeko plataforma. Hauexek dira lortu nahi diren helburuak:

- Bere bizi baldintzak hobetzea
- Euskal Herrira hurbiltzea

-Kondenaren hiru laurdenak bete dituzenez, baldintzapeko askatasuna lortzea.

Preso honen eta beste batzuen egoeraren berri, Noauako ale honetan agertuko den erreportai berezian izango duzue.



1.000 milioi pezetatik gorako aurrekontua

Udalaren 1998ko aurrekontua 1.100 milioi ingurura igo da urtean zehar egin diren hiru kreditu aldaketekin. Urte hasieran aurkeztu zen aurrekontua 640 milioikoa bazen ere, pasa den azaroaren 24an egin zen plenoan onartu zen 3. kreditu aldaketarekin 1.000 milioiak pasa egin dira. H.Bko 7 ordezkarien eta Izaskun Maiz independenteen aldeko botuekin onartu ziren aldaketa hauek. EA eta EAJ abstenitu egin dira, bai aurrekontua onartzerakoan baita kredituen onespenean ere.

Azaroko azken plenoan onartu zen urteko hirugarren eta azken kreditu aldaketa. Hasieran aurreikusita zeuden gastuak haundiagotu egin direnez, horretara bideratzen da zati bat, bestea, berriz, aurreikusi gabeko partidak dira.

144 milioiko kreditu aldaketa

Aurrekontuari 144 milioi erantsiko zaizkio aldaketa honekin. Aurrez aurreikusita zeuden gastuei dagokionez, nekazal bideak konpontzeko egin diren gastuek hartzen dute kopuru horren zati haundiena. Lan horiek aurrera ateratzeko 54 milioi gehiago behar izan dira, 9 milioi gehiago Santueneko zubiko lanak amaitzeko, 8 milioi herri guztia hornitzeko Añarbetik hartu den ura ordaintzeko eta 4 milioi Txokoaldeko urbanizazioa egin, Urdaia-



Nekazal bideak berritzeko 54 milioi sartu behar izan dira kreditu aldaketan

gako aparkalekua egin eta Gure Pakea zahar egoitza berriko ekipamendua erosteko.

Partida berrietara jotzen badugu, Kalezarko lokala moldatzeko 8.500.000 bideratuko dira, bost milioi hilerri berrirako eta hiru Etxealdiako sarreraren bigarren faserako. Izan ere, Etxealdian lehen fasea amaitu zuten, betelana egina dago, baina orain hormigonatu eta dena txukun uztea falta da. Lan horiek nork egin erabaki zain daude orain.

51 milioiko sarrera Eroskirengandik

Dena ez da gastua izango. Sarrera berriak ere badaude. Halanola, Eroskik obra publikorako 51 milioi eman ditu, erakuntza eta instalazioetatik 23 milioi lortu dira, 25 udal finantziatziotik eta 18 hirilurren balio gehikuntzagatik. Guztira 131 milioiko sarrera berriak izan dira. Hauei hasierako aurre-

kontutik atera diren zenbait inbertsio gehitu ezker 144 milioi ateratzen dira.

Ikusten den bezala, ekainaren batean izan ziren uholdeek eragin handia izan dute aurrekontuen puztutze honetan. Hondamendi hartatik hona egin diren lanen kostua aurtengo aurrekontuan sartu da, nahiz eta lan batzuk pasa den urtean egin.

Agustin Lizaso udaleko zinegotziaren esanetan, urte amaieran, hurrengo urteko aurrekontua egiterakoan, gutxi gora beherako aurreikuspen bat egiten da, baina gero asko aldatzen dira gauzak. "Askotan, inbertsioak zenbatekoak izango diren zehazki jakitea ezinezkoa da eta gauza berri ugari sortzen dira urtean zehar. Batzuk utzi daitezke gerorako, baina beste batzuk ezinbestekoak dira".

Josu Aranberri

BAR USURBIL

*Pintxo eta bokata
goxo-goxoak*

Eguzkitza



TABERNA

"GYRE PRESOAK

HERRIAN BEHAR DITVGV"



Iraza kalea, 12
Tlf: 943 36 02 17

XABIER EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78

Udalaren egoera ekonomikoa aztertuz

Zubizarreta Consultores S.L. enpresak egingo ditu udaleko 1998 ekitaldiko egoera eta diru kontuen ikuskaritza eta berraztertze lanak. Hala erabaki zuten pasa den azaroren 23an alderdi politiko bakoitzeko ordezkarietako batek eta udal kontuhartzaileak lehiaketara aurkeztu ziren bi proposamenak aztertu ondoren.

Pasa den urriaren 27ko plenoan onartu zen udalean kontu ikuskaritza egitea. H.B, EAJ eta **Izaskuz Maiz** independenteak aldeko botua eman zuten EA, berriz, abstenitu egin zen, Kirol Patronatua ikuskaritza horren barruan sartzea eskatzen baitzuen. Azaroko plenoan Etxezarreta Consultoresi eman zitzaizkon lanak.

Udalaren egoera ekonomikoa nolakoa den jakitea da ikuskaritza honen helburua.

Horretarako 1998an udaleko diru kontuak nola dauden aztertuko du Zubizarreta Consultores S.L. enpresak. Lan horretan udalaren eragiketa guztiak sartuko dira, aurrekontuak, aurrekontuz kanpo daudenak, ondarezkoak eta diruzaintzakook.

Sei hilabeteko epean lan hauek aurkeztu beharko ditu Zubizarreta Consultores enpresak:

- Finantza auditoriako txosten bat, 1998 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa legeak eta kontabilitateko arauak agintzen dutenarekin bat datorren edo ez iritzia emanez.

- Ondareko kontabilitatearen

auditoria: 1998ko ekitaldian abenduaren 31ko egoera balantzea eta emaitzen kontua aztertzea, auditoria arazo aipagarrienak eta horiek konpontzeko modua eta epea agertzen diren txosten bat egin ez.

- Udalaren administrazio eta kontabilitateko prozedurak hobetzeko ikuskatzailearen aholkuen txostena.



Udalak aurkeztutako hiru proiektu desberdin onartu ditu INEM-k. Azken urteetako lan ildoari jarraituz, aurten ere lan ugari burutu dira Enplegu Sustapenetik bideratutako proiektu hauen bidez, hala nola, Kalezarko eskailerak egiten lagundu, Aginagako eliza zaharra pintatu... Orain onartu dituzten proiektuen bidez honelako lan gehiago egin ahal izango dira. Langile hauen kontratuak behin-behinekoak izango dira, hilabete batzuetakoak.

ZERBITZUA	KONTRATAZIO ESKABIDEAK	DIRULAGUNTZA
Aginagako eliza zaharraren aurreko alde berritzea	3 peoi igeltsero Ofizial arduraduna	4.016.628
Kale Nagusia, San Esteban eta Bizkarra kaleko berrikuntzak	4 peoi igeltsero Igeltsero ofizial ardura.	4.943.099
Aginagako pisu soziala eta eraikinaren aurreko alde pintatzea	Gaur egungo 2. mailako 2 pintore ofizialen kontratua luzatzea	633.960

ZENDOIA-ENE

TABERNA

Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60

TXURRUT

edaritegia



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel:943 36 00 80

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

Gabonetarako euskal presoak Euskal Herrira

Gabonetarako euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko kanpainarekin aurrera doa Senideak elkarteak. Azken urteetan aldarrikatzen ari direna besterik ez dute eskatzen: askatasuna debekatuta duten pertsonak dagokion zigorra bere inguru familiar eta sozialeko espetxean zigorra betetzeko duen eskubidea. Pasa den azaroaren 24an aldarrikapen hau jasotzen zuen mozioa aurkeztu zuen Usurbilgo Senideak ple-noan eta alderdi politiko guztien aldeko botoekin onartu zen.

Azken urte hauetan, Euskal preso politikoen dispersioa eta gaur egungo politika penitentiarioaren amaiera eskatzen duten ahotsak ugari izan dira. Egoera hau gainditzeko mobilizazio ugari bultzatu dira talde sozial desberdinen aldetik eta Gasteizko Legebiltzarra eta bere Giza Eskubideen Batzordeak ere onartu zuen bere garaian eskaera hau.

Hala ere, 1998a amaitzera dioanean mobilizazio guztiak alferrikakoak izan dira. **Arantxa Manterola** Senideakeko kidearen esanetan aldarrikapen honek ez du arrakastarik izan. "Azken urteetan legea betetzea besterik ez badugu eskatzen ere, ez digute kasurik egin, ez dugu ezer lortu. Orain itxaropen bide berriak ireki direla dirudi, baina gu lehen bezala gaude. Nahiz eta Gabonetarako Euskal presoak Euskal Herrira kanpaina prestatu izugarritzko itxikeria eta txantaila egiteko asmoa ikusten dugu".

Azken hilabete hauetan, Euskal Herrian egoera berri baten aurrean gaudela eska-



Pasa den azaroaren 28an euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatuz egin zen manifestazioan jende ugari bildu zen. Hona hemen Usurbildik joan zirenetako batzuk

ten da. ETAk baldintzarik eta mugarik gabeko su etena aldarrikatu zuen, baina Frantziako eta Espainiako Gobernuen kartzela politika ez da aldatu. "Txantaila besterik ez dute egin nahi- dio Arantxak -. Legea betetzea mesede bat egitea bezala da, horrela kontsideratzen dute eta hori guretzat, txantaila hutsa da". Gizalegez eta legez zor zaiena da zigorra Euskal Herriko espetxeetan betetzea eta zigorraren 3/4nak beteak dituzten euskal presoak baldintzazko askatasuna izatea.

Legea betetzea mesede bat egitea bezala kontsideratzen dute eta hori txantaila da

Zer egin behar da bi gobernuek legea bete dezaten? Senideakekoek argi dituzte gauzak. "kalean mobilizatu egin behar da. Orain dela 21 urte inguru presoak kaleratzea

lortu zen herria kalera irten eta askatasuna aldarrikatu zuela. Orain ere presioa egin beharko da kalean eta presoak honera ekar ditzaten herritar guztiak mugitu".

Pasa den azaroaren 24an aurrez aipatutako aldarrikapenak jasotzen zituen mozio bat aurkeztu zuen udalean Senideak. Azken urteetan ez bezala, HB, EA, EAJ eta Izaskun Maiz independenteak baiezkoa eman zioten Senideak aurkeztutako eskakizunei.

Honekin batera, "Gabonetarako euskal presoak Euskal Herrira" lemapean hainbat ekimen burutuko dituzte urtea bukatu aurretik. Abenduaren 31an egingo den manifestazio ixila izango da garrantzitsuenak. Udaleko alderdi guztiek bultzatzen duten manifestazio hau arratsaldeko 18.30etan hasiko da eta herritarren eta herriko elkarten inplikazioa eskatzen dute herriko presoekin senitartekoekin herriko kaleetan ahalik eta karraxi isil ozenena entzun dadin.



Xabier Aranburu "Xomorro"
Herrera de la Mancha

Herrera de la Mancha espetxeko zuzendaritzak Xabier Aranburu "Xomorro" aginagarrari eta bertan espetxeraturik dauden 22 euskal preso politikoei 147 asteburueterako isolamendu zigorra ezarri zien 1998ko irailean. Herrera de La Manchako espetxeraturiko euskal presoek bisitaldiak burutzen diren lokutorioetako kristalak garbi zitzaten eskatu zioten

espetxeko zuzendaritzari eskari bidez, kristal hauek erabat zikinak egon ohi baitira. Eskaera honen erantzuna asteburueterako zigorra izan da.

Era berean, euskal presoek kolektibo honek etengabeko borroka darama, espetxeko funtzionarioen bidegabekeriak salatuz. Honela, euskal preso politiko bat zigortzen duten bakoitzean elkartasuna adierazteko edo presoek senideek espetxerako bidean izaten dituzten istripuak salatzeke instantziak igortzen dizkiote espetxeko zuzendaritzari.

Xabier Aranburu Aginagako presoak jakinarazi digunez, Herrera de la Manchako euskal

presoek kolektiboak espainolek inposatutako espetxe politika gogor salatzen du, astelehenero funtzionarioen aurrean enkarteladak burutuz, senide eta lagunei igortzen dizkieten gutunetan ere (irakurri egiten baitizkiote) egoera hau salatuz, berei ez dagozkien garbiketa lanak egiteari uko eginez, eta beste hainbat protestaldi burutuz. Xomorrok hilabeteak daramatza arratsaldeetan zigorturik, bere ziegatik atera gabe, beste hainbat preso bezala, sakabaketa politika salatzeagatik.

Bestalde, bizkar hezurreko min izugarriak jasaten ari da urte hasieratik eta oraindik ez diote diagnostiko zehatzik eman



Ramon Uribe Navarro
Segovia

Carabanchel, Ocaña eta Valdemoroko espetxeak ezagutu ondoren gaur egun Segovian aurkitzen da Ramon Uribe. Lehenengo gradoa duenez hau da bere egoera: Bai goizez eta bai arratsalde bi

orduko patioa du. Komunikazioak eta posta interbenituta ditu eta honen ondorioz euskarazko gutunak bi hilabeteko atzerapenarekin jasotzen ditu. Euskarazko ikasketak burutzeko ere hainbat oztopo ditu bidalitako materiala oso berandu iristen zaio eta. Euskararekin zerikusia duen guztiarekin arazoak baditu ere, eskutitzak adibidez, bi egunetan iristen dira.

Funtzionarioen jarrera, tratualdetik, nahiko lasaia da

Segoviako kartzelan. Honek ez du esan nahi arazorik ez dutenik, oztopo ugari jartzen baitizkiete nahi dutenean.

Ramonek esandakoaren araberaz ez dute otordu goxorik izaten. Elikadura oso kaxkarra da eta espetxea oso zaharra denez, instalazioak ez dira baterre egokiak. Honela, neguan gorriak pasatzen dituzte. Urte sasoi honetan Segovian hotz handia egiten du eta kartzelan pasatzen duten hotza jasanezina da.



Jon Tapia
Salto del Negro

Zubietan jaiotako preso honek 15 urte eta erdi daramatza kartzelan. Urte horietan Carabanchel, Alcalá de Henares, Herrera de la Mancha eta Cartagenako espetxeetatik pasa da, eta 1989a ezkerroztik Canariar irletan dagoen Salto del Negro espetxean dago.

Jon eta beste presoek kexa haundiena bizi duten bakardadea da. Preso bakoitza modulo desberdinean dago eta ez du beste euskal presoekin egoteko aukerarik. Horrez gain, egunetan 22 ordu egiten dituzte bakar-bakarrik zeldan sartuta, 20 ordu inposatuta eta 2 ordu gehiago bizi baldintzegtatik protesta eginez. Azken finean ezin dute liburutegira edo kiroldegira joan eta patioan bi ordu egiten dituzte, beti ere preso sozialekin.

Famili artekoek eta lagunek kilometro ugari egin behar izaten dituzte Jon ikustera joateko.

Hala ere oraindik egoera lehenago baino hobea da. Garai batean "bis a bis"ik ez zegoen eta asteazkenetan eta larunbatetan izaten zuten bisita egiteko aukera 20 minutuz. Orain, berriz, larunbatetan 40 minutuko bisita dute eta lau larunbatetako bisitak larunbat bakarrean egin ditzateke. Hori bai, bisitak grabatuak dira.

Apirilaren 6an bete ziren 15 urte atxilotu zutela, eta aurten bete ditu zigorraren 3/4ak. Redentzioak behar bezala aplikatu izan balizkiote kalean behar luke Jon Tapiak.

Artzeren hitzak "Bai euskarari!" abestian

Durangoko azokan "XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari!" kanpainako abestia aurkeztu zuten pasa den abenduaren 7an. Doinua **Anje Duhaldek** egin du eta kantatzen **Niko Etxart** eta **Ixiar Orejaren** laguntza izan badu ere, usurbildar artista batek jarri ditu abesti horretako hitzak: **Joxanton Arze** olerkariak. Usurbildarraren hitzek ideia hau azaltzen dute: "Erdaldunek ez gaituzte ezagutzen geure hizkuntzan, eta ezagutzen ez dena nola maite?". Olerki hau kantatzeko errazagoa izan dadin **Andoni Egaña** eta **Sebastian Lizasok** ukitu batzuk eman dizkiote.



Poesia eta narrazio lehiaketarentzat izen bila



Udala eta Udaregi ikastola gazteentzat "Poesia eta narrazio lehiaketa" antolatu nahian dabilta. Honen nondik norakoak zehazteko zenbait bilera egin ondoren, lehiaketari izena eman nahi diote. Batzordeak zenbait izen proposatu ditu: "Felix Aizpurua saria", "Gaztelu bertsolariren saria" eta "Andatza saria". Orain usurbildarren esku utzi nahi du izenaren aukeraketa. Horregatik, hauetatik gustokoa duzuen izena aukeratu eta Noaia! Kultur Elkarteko egoitzara bidali dezakezue zuen iritzia. Proposamen berriak bota nahi badituzue bidali horiek ere.

Odol emaileen urteroko bazkaria

Aurtengo odol emanaldiak azaroaren hasieran bukatu ziren, baina odol emaileak joan den abenduaren 8an bildu ziren. Zertarako? Bazkaltzeko noski! Izan ere, urtero odol emaileen bazkaria egiten dute eta aurten Zubieta aldera jo dute. 60 odol emaile inguru bildu ziren Alamandegi jatetxean, datorren urterako indarrak hartu asmoz bapo bazkaldu zuten. Hori bai, aurten ere, urteroko ohiturari jarraituz, erregali bat zozketatu zuten. Nori tokatu zitzaion? Argazkira begiratzearekin nahikoa da. **Vicente Leronesek** eraman zuen etxera mikrouhin hori.



GALARRAGA GARRAIOAK

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

Telf.: 943 37 01 46

MAHUKA

*Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu*

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 943 36 11 06

**BI USURBILDAR
EPAITUAK**

Datorren abenduaren 16an Euskal Herrian Euskarazeko sei kide epaituko dituzte Donostiako epaitegian. Ez da hau talde honetako partaideen aurka egiten den lehen epaiketa, arrazoi berdinagatik beste bat egin baitzen duela gutxi. Oraingoan ere usurbildarrak daude tartean, bi hain zuzen ere. Horregatik, epaitegi aurrean egingo den konzentrazioa deituta zaudete denok. Konzentrazioa goizeko 9.30etan izango da abenduaren 16an.




Luis Mari Ormaetxea izango da datorren urteko ekainean izango den udal hauteskundee-tarako Eusko Alkartasunak aurkeztuko duen alkatetagaia. Azaroaren 28an udaletxean egin zuten aurkezpen ekitaldian, **Luis Mari Ormaetxeak** 2015 urterako Usurbilgo EAk zer nolako herria nahi duen eta datozen legealdietan egin beharreko lana aurkeztu zuen. **Inaxio Oliveri** hezkuntza sailburuak eta **Iñaki Galdos** EAren Gipuzkoako komunikazio idazkariak ere hitz egin zuten.

**JOSTAILU UGARI EKUA-
DORRERA BIDALTZEKO**


Mikel Elexpek Ekuadorretik **Joxe Antonio Altunari** egin zion eskariak harrera ona izan du herritarren artean. Gabonetan Lojako albergeko 85 hurrei erregaatzeko jostailuak, lapitzak, kuadernoak etab. eskatu zituen, eta dagoeneko poltsa ugari daude Ekuadorrera eramateko. Abenduaren 13a, igandea, da jostailuak emateko azken eguna. Beraz, azken momenturako utzi duzuenok ez ahaztu, Noaua! Kultur Elkarteko egoitzara eraman jostailuak.



Mertxe Aizpurua kazetari usurbildarra izango da "Gara" (Euskal Herriko egunkaria gara) egunkari berriko zuzendaria. Pasa den azaroaren 29an Anoetako belodromoan egin zen aurkezpenean eman zen egunkari berriaren izena eta Egineko erredaktore nagusiak hartuko du honen zuzendaritza. Bestalde, euskal hiriburu guztietan bulegoak izango badituzte ere, errotatiba Usurbilen egongo da. Beraz, Usurbilen inprimatuko da "Gara" egunkari berria.



Inguruko bideetan gero eta ibilgailu gehiago ibiltzen direla gauza jakina da. N-634 errepidean adibidez, Usurbildik Errekalderako bidean 18. 341 ibilgailu ibiltzen dira egunero. Udaberri-rako Aritzetako autobidea amaitzea espero dute, baina ez da hori inguru honetan egingo duten lan bakararra. 2000-2004 urte bitartean berrikuntzak egingo dira Errekaldetik Zarautzerako bidean. Zati batzuetan hirugarren karril bat egingo da. 1.000 milioiko inbertsioa aurreikusi dute honetarako.



Eskaitz

Bideo eta ARGAZKIak

Usurbil tlf 943 36 14 87 oiaRTZun

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Hirugarren aldiz Koldo eta Inaxio garaile

Inaxio Arruti eta Koldo Lertxundik hirugarren urtez segidan eskuratu dute Aitzaga Elkarteak antolatzen duen eskuz lau eta erdiko txapelketa. Partidu luze eta gogor baten ondoren, 22-17ko emaitzaz gainditu zituzten Oidui Usabiaga eta Haritz Urdanpilleta pasa den azaroaren 29an.

Inaxio eta Koldo txapeldun. Aurten ere ez dute huts egin. Azken bi txapelketak irabazi ondoren, segidan hirugarren txapela eskuratzeko aukera zuten. Gorriak ikusi zituzten, bai, baina partidua aurrera atera zuten. Oidui eta Haritzek egin ahalak egin bazituzten ere garaipenik gabe gelditu ziren.

Partidu luzea izan zen. Lau pelotariak ordu eta erdi inguru jardun zuten pelotan, eman eta eman, batera eta bestera.

Tanto luzeak jokatu zituzten, leher eginda bukatzerainokak batzuetan. Tantorik luzeenean 81 pelotakada emateraino iritsi ziren.

Hirugarren eta laugarren postuak jokoan ziren partiduan "aitonak" nagusi. **Mikel Arroyo**

eta **Joxe Mari Lizasok** eskuratu zuten hirugarren postua **Igor Uribe** eta **Iker Mujikari** 22-13 irabazi ondoren.

Finaleko jokalaririk onena, berriz, **Koldo Lertxundi** txapel-duna izendatu zuten.



Brontzezko domina Espainiako judo txapelketan

Usurbil Judo Taldeak arrakastaz arrakasta segitzen du. Urtea amaitzera dioanean taldeko judoek emaitza bikainak lortu dituzte txapelketa desberdinetan. Bai gizonezkoak eta bai emakumezkoak indartsu dabilza.

Josu Arruti (+90 Kg.) eta Andoni Aizpuruak (-55 kg.) brontzezko bi domina lortu zituzten Madrilan ospatutako 18 urtez azpiko Espainiako txapelketan. Biak goreneko puntuaketarekin iritsi ziren finalerdietara, baina kataluniako bi judoken aurka ezin izan zuten ezer egin.

Emakumezkoen taldeak, berriz, lau domina lortu zituen Irunen. Valentzia, Santander, Nafarroa eta Frantziako judokak izan zituzten aurrez aurre. **Aiora Arrospidek** zilarra lortu zuen eta **Vanessa Guevarak** brontzea 58 kilo baino gutxia-



go zituztenen arteko lehian. 78 kilo baino gehiagokoetan **M^o Sardon** nagusitu zen eta **Garazi Goikoetxeak** bereganatu zuen brontzea.

Sanboari dagokionez, hamaika domina lortu zituen Usurbilgo Judo Taldeak Euskadiko 19 urtez azpiko sanbo txapelketan. Urrea lortu zuten

Jon Martin (- 52 kg.), **Andoni Aizpuruak** (-56 kg.), **Alex Sanchez** (-60 kg.), **Gabriel Sarasola** (-75 kg.), **Iker Pagola** (-81 kg.) eta **Josu Arrutik** (+87 kg.).

Zilarrak **Xabier Heras** (-56 kg.), **Iñigo Etxaniz** (-60 kg.) eta **Eñaut Arriagarentzat** (-65 kg.) izan ziren. Azkenik, brontzea eskuratu zuen **Iban Etxanizek**.

Asier Zubiria etorkizuneko kirolaria

Asier Zubiria usurbildarra etorkizuneko kirolaria izendatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eskubaloi jokalariek aurten bete ditu 17 urte eta Irungo Bidasoa taldean jokatzen du gaur egun. Datorren abenduaren 17an egingo den ekitaldian banatuko zaizkie oroigarriak.

Kirolari gazte honek aurten-go denboraldian salto handia eman du eskubaloi munduan. Usurbil Kirol Elkartearen hasi zen eskubaloi jokatzen eta bertan eman ditu hainbat urte. Aurtengo denboraldian, ordea, Bidasoaren deia jaso eta Irun alderako bidea hartu du ia bi metroko garaiera duen atezainak.

Aurre denboraldian Ohorezko mailako jokalariekin entrenatu zuen Asierrek, nahiz eta gero jubenil mailan jokatu.

Hala ere, 17 urterekin Ohorezko mailan debutatu du ja.

Gurutz Aginagalde bigarren atezainak min hartu ondoren usurbildarra izan zen honen ordezkoa, nahiz eta minutu gutxi batzuk besterik ez zituen jokatu.

Orain, Gipuzkoako Foru Aldundiak etorkizuneko kirolaria izendatu du, beste hainbat gipuzkoarrekin batera. Iaz **Andoni Aizpurua** judoka aukuratu zuten, aurten berriz **Asier Zubiria**, Bidasoako eskubaloiko atezaina.



Usurbil Kirol Elkartearen 2. nazionala



Ezkerretik eskubira. Goian: Carlos Fierro (delegatua), Kepa Unanue, Eneko Salsamendi, Iñaki Urroz, Kimetz Uranga, Pako Agudo, Iker Portularume, Asier Salsamendi, Antonio Moriana eta Jose Lorenzo (entrenatzailea). Behean: Andoni Flores, Mikel Iturrioz, Enrike Uli, Gustavo Moriana, Aitor Arruti, Ibon Iraola, Iñigo Salaberria, Anartz Goia eta Gonzalo Brea

Haur erdaldunak euskaldunduz

Ikasturte berriarekin batera etorri zaigu aurten ere Euskal Txokoak. Hiru urte pasa dira udalak euskararen normalkuntzarako prozesua aurrera egin nahian, ekimen honi ekin ziola. Udala, Udarregi eta Ageri Alderen arteko lan bateratu baten fruitua izan da Euskal Txokoak. Proiektu hau guraso erdaldunak dituzten haurrengan zuzenduta dago bereziki, haur hauetan somatzen baitzen behar nabarmena.

Proiektua bi zatitan banatzen da: Kaleberri eta Santuenea. Santuenea auzoa aparte bezala hartu da, haurrak giro erdaldunean bizi direlako. **Leire Errasti**, begiraleetako batek, honela azadu digu: "*Herrian batzuk Agerialden ibilitakoak dira, beste batzuk, berriz, Udarregin. Elkar bistaz baino ezagutzen ez dutenez, beren artean ez dago harreman sendorik, horregatik euskaraz hitz egiten dute. Santuenean, ordea, denak ezagutzen dute elkar eta erdaraz hitz egiteko ohitura dute. Euskal Txokoetako taldea kaleko koadrila da azken batean; horregaitik ohitura aldatzea oso zaila da*".

Hiru urte luze pasa dira eta izan da aldaketarik. Bi desberdintasun mota somatzen dituzte: bata, beren antolamenduan eta, bestea, haurrengan. Proiektu berri bat izatetik, eta definitu gabe gainera, oinarri finko batzuk izatera pasa da. Proiektuak dagoeneko bere martxa hartu du. Haurrei dagokienean, berriz, txikiengan nabarmentzen dituzte bereziki aldaketak. Hiru urtetako ume batek hasiera batean hitz solteak adierazteko baino ez du gaitasunik. Gero, ordea, esaldiak osatzen, trebatzen hastenda. "*Baina hau ez da soilik guri dagoki-*



gun zerbait, ikastolak ere badu zeresanik. Harreman oso onak mantentzen ditugu ikastolarekin eta hori oso egokia da lan egiteko orduan" zioen **Itzalai Pikabeak**. Ainhoa Labakak ere bere iritzia eman digu; "*garbi ikusten genuen hasiera batetik urte batean ez genituela zikloak garbi ikusiko, urteen poderioz ikusiko da haurrek zer nolako eboluzioa izan duten. Aurrera begira asko dago egiteko, baina pixkanaka-pixkanaka ari gara*".

Aurten, aurreko urteekin alderatuz, ume kopurua gutxitu egin da. Hasierako urtean, proiektu berri eta ezohikoa izan zen. Bi urte hauetan kopurua zertxobait murriztearen arrazoia beharra gutxitu delako izan da. "*Umeek Euskal Txokoak uzteak kezkatu egiten gaitu, batez ere beharra duen*

haur batek uzten badu. Arrazoiak bilatzen saiatzen gara gurasoekin edota irakasleekin hitz eginez. Aurten, adibidez, kopurua gutxitu egin zaigu, baina beharra ere gutxitu egin delako izan da"

Aurtengo ikasturtean 50 haur inguru dabilta. Txikitari (3-7 urte bitarteko haurrak) eta haurduntari (7-12 bitartekoak) banatzen dira. Ekintzak taldearen arabera antolatzen dira. "*Gerta liteke talde batek eskulanak izatea oso gustoko eta, aldiz, beste batek ekintza dinamikoak. Orduan, gustoko duten aldetik jotzen dugu ekintzak taldera egokituz. Eguraldiak ere asko baldintzatzen gaitu*".

Euskal Txokoetako helburu nagusia jokuen bidez euskera transmititzea da. Askok euskera ikastolarekin lotzen dute, eta euskera ikasgaia bezala hartzen dute. Horregaitik, sentimenduak ere lantzen saiatzen dira euskara maitatzen irakatsiz. "*Horretarako modu egokiena,- aipatzen du **Maixux Iribarrek** - joku tradizionalak, guri transmititu dizkiguten jolasak beraien ere euskaraz transmititzea da. Gure ohiturak euren ohiturak ere bihurtzea dugu helburu*".



Agurtzane Solaberrieta

“Gara” egingo dugu, zuen laguntzaz

A benduaren 11tik 13ra “egingo dugu” festa izango da Aginagan. “Gara” egunkari berriaren proiektua errealitate bihurtzeko Usurbilen 8.500.000 pezeta lortzea da helburu nagusia, eta horretarako hiru eguneko festa haundia antolatu du Usurbilgo ordezkariak. Hala ere, ez da hau diru iturri nagusia, egunkari berria aurrera aterako duen enpresaren akzioak salgai baitaude.

Azaroaren hasieratik erosi daitezke “Gara” egunkari berria aurrera ateratzeko akzioak. 100.000 pezetaren truke akzionista bihurtzeko aukera dago eta hasiera batean azaroaren azkenerako diru bilketa amaituta egon behar bazuen ere, epea luzatu egin dute. Abenduaren 8an 6.000.000 inguru bilduak bazeuden ere, Usurbilen egingo dugu kanpaina eramaten ari direnek helburua bete eta pasa daitekeela uste dute. “8 milioiak lortzearekin ez dugu konformatu



behar. Beste herrietan jarritako helburuak gainditu egin dituzte, eta usurbildarrok ez gara gutxiago izango”.

Akzioak saltzeaz ahaztu ez badira ere, abenduaren 11tik 13ra Aginagan egingo den festan jarriak dituzte begiak. Ostiralean herri afaria izango da, eta ondoren Izotz eta Ake-larreren doinuak entzun eta dantzatu ahal izango dira Aginagako plazan. Larunbatean mus txapelketa izango da arratsaldean eta gauean, berriz, Morau eta Folkcore tal

deekin kontzertua eta trikiti festa Aitor Furundarena eta Sakanako trikitalariek. Azkenik, igandean, sokatira saioaren ondoren, bertso saio bikaina antolatu dute “Egingo dugu”ko antolatzaileek. Punta puntako bertsolariak igoko dira Aginagako zine aretoko oholtza gainera: Xebastian Lizaso, Mikel Mendizabal, Jokin Sorozabal, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Unai Agirre, Inaxio Usarralde aginagarra arituko delarik gaijartzailer lanetan.

Zuk ere esan ezazu “Bai euskarari”

Bai Euskarari akordioa Usurbilen ere aurrera doa. Abenduaren 20an goizean Santo Tomas festa egingo da frontoian, arratsaldean Takolo, Pirritx eta Porrotxen txanda izango da. Egun berean, euskararen egoerari buruzko datu garrantzitsuenak (erabilera, ezagutza eta jarrera) jarriko dira panel batzuetan.

Euskararen normalkuntzaren aurrerakada motela da. Azken 20 urteotan euskerak aurrerakada haundia izan badu ere, etorkizuna ez dago ziurtaturik. Helburua, beraz, euskera gizar-teko edozein esparrutan normaltasunez erabili ahal izango den hizkuntza izatea da. Iparraldean, adibidez, egoera

kezkagarria da, euskera gal-tzekotan baitago.

Kontestu honetan agertzen da Kontseilua. Administrazio desberdinekiko loturarik ez duten eta euskararen inguruan lan egiten duten talde eta erakunde gehienek bilgunea da eta normalkuntza prozesua bizkortzea da bere funtzioa.

Abenduaren 26an jaialdi berezia egingo da. Elkarrekin lotuta egongo dira Bilboko San Mames, Donostiako Ano-eta, Gasteizko Mendizorrotza, Iruñeako Sadar eta Miarrizteko Aguilera estadioak. Sarrera dohainekoa izango da.

Herrian, herriko talde desberdinek lan talde bat osatua

dute. Momentuz enpresa nagusienetara jo da euskera-rikiko atxekimendua lortzeko. Horrez gain, abenduaren 20an, Santo Tomas festa eta Takolo, Pirritx eta Porrotx euskeraren aldeko festa bihurtuko dira.



Euskal Herriko eguzki panel haundiarena

Oiardo kiroldegian eguzki panelak uztailean jarri bazituzten ere, pasa den azaroaren 26an egin zen aurkezpen ekitaldia udaleko pleno aretoan. Joxe Antonio Altuna alkatea, Iñaki Yurramendi kiroldegiko zuzendaria, Jokin Aldazabal Eguzki Indar enpresako ordezkaria eta Gloria Etxeberria Energiaren Euskal Erakundeko ordezkariak, Euskal Herrian jarri den eguzki panelen instalazio haundiaren berri eman zuten.

Udalak, bere garaian, energia berriztagarriak erabiltzeko aukera aztertu zuen. Kiroldegi berriaren proiektua egiterakotan ohizko energi iturriez gain besteren bat erabiltzeko asmoa agertu zuen, baina teknologia aldetik segurtasun ezak eta erakunde ofizialen laguntza eza oztopo garrantzitsuak izan ziren.

Orain dela bi urte, ordea, eguzki indarrak baliatzeko proposamena jaso zuten eta ez



zuten atzera egin. Proiektua aztertu eta pasa den iraila ezkeroztik eguzki bidezko energia erabiltzen da kiroldegian. Izan ere, energian gastatzen den dirua murriztea izan da azken urteetan kiroldegiaren erronka nagusia. Urtean 7. milioi inguru gastatzen dira gasoleoan eta elektrizitatean.

120 metro karratuko azalera-ekin, Euskal Herriko eguzki

panelen instalazio haundiarena da kiroldegikoa. Dutzetako ura berotu eta piszina girotzeko erabiltzen den sistema honekin %50a aurreztu nahi da. Urtean 60.000 Kw/ordu lortu eta 12.000 litro gasoil aurreztea da helburu nagusia. Honenbestez, kiroldegiaren CO² emisioak 40 tonelada inguru gutxituko dira urtero.

Oraingoz bide onetik doazela adierazi zuen **Iñaki Yurramendik**. "Irailtik azaroaren amaierara, batz bestea, 7.000 litro gasoleo gastatu izan dira azken hiru urteetan. Aurten, eguzki indarraren laguntzaz, 4.000 bakarrik erabili ditugu. Honekin batera, ingurugiroarekiko kaltea ere murriztu dugu". Hiru hilabete hauetan ez da %50a aurreztera iritsi, baina kontutan hartu behar da eguzki indarra lortzeko hila-bete txarrak izan direla, iraila, urria eta azaroa.



JARRI EZAZU ZURE PUBLIZITATEA HEMEN!

Usurbilgo etxe guztietara iritsiko da zure publizitatea Noaia!ren bidez

Bota bertsoa

Ilargipean parranda

Gaua helduta nahi izaten da
neskatxaren bat ligatu,
nahi baldin badu buelta bat eman
edo bestela dantzatu.
"Ez dugu lortu, zer egingo da!"
behintzat gerade saiatu
depresioak jo nauela ta
ni bat-batean atxurto,
gau tragikoa bihar goizean
ez dut nahiko gogoratu.

Doinua: Mutil koxkor bat
Egilea: Jon Arruti

Lasarten kokatzen da
"Ilargi taberna"
han elkartzen gerade
sorgin jende dana,
gauzez egin ohi dugu,
ahal bada plana,
alkohola iristen da
bezeroangana,
eklipsea heltzea
da gaueko lana.

Doinua: "Batetikan korroska"
Egilea: Imanol "Troia"

Igande goizean nik
neukan lehortea,
"txarroka ur atera!
nahi dut edatea"
jateko gogorik ez
ta edan bestea,
hori da gau on baten
ondorio tristea

Doinua: "Xarmengarria zira"
Egilea: Mikel Aranburu

Erremedioen txokoa

Katarroarentzat eta eztarriko mina-
rentzat litro bat ur jarri behar da
berotzen kazo batean. Ondoren, ira-
kiten hasten denean, eskukada bat
asun ostoa botako diogu. Utzi 20
minutu inguru eta egunean zehar
beldurrik gabe hartu.



Erreumaren mina arintzeko esku-
kada bat asun ostoa freskoak
hartu eta miña dugun tokian igur-
tzi behar da behin eta berriz.
Ondoren ur hotzez garbitu.
Egunean 2 edo 3 aldiz igurtitzea
komenigarria da.

Lehiaketa

Euskal Herrian, euskararen erabilerari dagokionez, herriz-herrikako errealitatea oso desberdina da. Badira herri euskaldunak, biztanleen gehiengoak euskaraz hitz egiten dutenak, eta badira ere euskararen presentzia txikiko herriak. Azken hauetan sakontzea da oraingo lehiaketaren helburua, herri erdaldun hauen kopurua jakin nahi dugu. Horretarako %10ean jarri dugu muga. Hego Euskal Herrian 287 herritan %10a baino gutxiago egiten da euskaraz.

Gipuzkoan hiru herritan egiten da %10a baino gutxiago euskeraz. Zein dira hiru herri hauek?

Galdera honen asmatzaileen artean liburu sorta bat zozketatuko da "Bai euskarari" kanpainaren barruan abenduaren 20an Usurbilen egingo den jaialdian.



*Sagardotegiho menua
bazkari eta afarietan;
bakailaoa eta haragia*

Etxeko sagardoa dastatzeko aukera!

Tel.: 36 63 27

**Urte berriarekin
batera...
Egin zaitez bazkide!**

ABENDUAK 12 larunbata

- **Futbol partidua** 2. kadete mailan (M): **Añorga - Usurbil F.T.** Añorgako futbol zelaian.
- 1. errejional mailako **futbol partidua** (M): **Arretxabaleta-Usurbil F.T.** Arretxabaletako futbol zelaian.
- 2. nazionaleko **eskubaloi partidua** (M): **Ereintza - Usurbil K.E.** Oretetan.
- Kadete mailako **eskubaloi partidua** (M): **Almen - Usurbil K.E.**
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (M): **Almen - Usurbil K.E.**
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (N): **Usurbil K.E. - Bergara.** Oiardo kiroldegian 17.00etan.
- Kadete mailako **eskubaloi partidua** (N): **Zarautz - Usurbil K.E.** Zarautzko kiroldegian.
- **Futbol partidua** 2.jubenil mailan (M): **Usurbil F.T. - Urnieta B** Harane futbol zelaian 15.30etan.

ABENDUAK 13 igandea

- Nesken errejional mailako **futbol partidua** (N): **Usurbil F.T. - Dumboa.** Harane futbol zelaian.

ABENDUAK 19 larunbata

- 1. errejional mailako **futbol partidua** (M): **Usurbil F.T. - Euskalduna.** Haraneko futbol

zelaian 15.30etan.

- **Futbol partidua** 2. kadete mailan (M): **Usurbil F.T. - Hernani.** Harane futbol zelaian goizeko 11.00etatik aurrera.
- **Futbol partidua** 2.jubenil mailan (M): **Urnieta C-Usurbil F.T.** Urnietako kiroldegian.
- Nesken errejional mailako **futbol partidua** (N): **Intxaurdi-Usurbil F.T.**
- 2. nazionaleko **eskubaloi partidua** (M): **Portugalete - Usurbil E.T.**
- Kadete mailako **eskubaloi partidua** (M): **Usurbil K.E. - Loiola.** 16.00etan.
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (M): **Usurbil K.E. - Urola.** 19.00etan.
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (N): **Usurbil K.E. - Zestoa.** 16.00etan.

ABENDUAK 20 igandea

- Hondartzako futbol txapelketa Kontxako hondartzan: **Aginaga Sagardotegia-Servicristal.**



Emaitzak

Futbola

Azaroak 28-29

Usurbil F.T. **0** Zarautz **1** (1.R.)
Ostadar **3** Usurbil F.T. **1** (ju.m)
Hondarribia **0** Usurbil F.T. **2** (n.)
Usurbil F.T. **2** Texas Las. **1** (k.m)

Abenduak 5-6

Ordizia **2** Usurbil F.T. **1** (1.R.)
Usurbil F.T. **2** Danena **2** (ju.m)
Hernani **0** Usurbil F.T. **3** (n.)
Usurbil F.T. **0** Ostadar **3** (k.m)

Eskubaloia

Azaroak 28-29

Arrasate **19** Usurbil K.E. **24** (2.N.)
Usurbil K.E. **29** Arrate **30** (ju.m)
Usurbil K.E. **40** Almen K.E. **27** (ka.m)
Zarautz **14** Usurbil K.E. **9** (ju.n)
Usurbil K.E. **11** Usurbil K.E. **12** (ka.m)

Abenduak 5-6

Usurbil K.E. **26** Barakaldo **29** (2.N.)

Hondartzako futbola

Abenduak 6

Aginaga Sag. **8** Pizza Queen **1**

Abenduak 8

Aginaga Sag. **4** Txingudi **2**


Futbol Aretoa

Azaroak 28-29

Iceberg **3** Antxeta **5** (ju.m)

Laburdurak

R.: errejionalak ka.: kadeteak
N.: nazionala n.: neskak
ju.: jubenila m.: mutilak



Amagoia Mugica Telleria

"apelliduak abizendu"

A genda

ABENDUAK 11 ostirala

- Euskal Herria Euskarazek antolatuta EHE kideen aurkako epaiketak salatze **konzentrazioa** frontoi atzean arratsaldeko 20.30etan.
- Aginagan eta "Egingo dugu" festaren barruan: 21.00etan **herri afaria**. 23.00etan dantzaldia: **Akelarre eta Izotz**

ABENDUAK 12 larunbata

- "Egingo dugu" festaren barruan, Aginagan: 16.00etan **mus txapelketa** 23.00etan kontzertua: **Morau eta Folkcore** Ondoren... Trikiti festal **Aitor Furundarena eta Sakanako** trikifilariak.

ABENDUAK 13 igandea

- Aginagan "Egingo dugu" festa. 16.00etan **Sokatira** 19.00etan **bertsolariak** eliza berriko zineman: **Sebastian Lizaso, Mikel Mendizabal, Jokin Sorozabal, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Unai Agirre. Gaijartzaile Inaxio Usaralde**

ABENDUAK 14 astelehena

- Euskal Herria Askatularen **konzentrazioa Bordatxo aurreko** errotondan arratsaldeko 20.00etan.

ABENDUAK 16 asteazkena

- Donostiako epaitegiaren aurrean **konzentrazioa**. Euskal Herrian Euskarazeko sei kide epaitzen dituzte, horietatik bi usurbildarrak dira. Goizeko 9.30etan epaitegi aurrean.

ABENDUAK 20 igandea

- **Santo Tomas eguneko festa** egingo da frontoian. Ziortza Gazte Taldeak antolatzen duen egun honetan ez da txorixo eta talorik faltako.
- **Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek "Baserrian"** beren lan berria aurkeztuko dute Oiardo kiroldegian arratsaldeko 17.00etan hasita. Aitzaga kultur Elkarteak antolatuta.
- Udalak tabernarien laguntzarekin udazkenean antolatzen dituen dantzaldietan azkena. Arratsaldeko 18.30etan **Imuntzo eta Belokirekin erromeria** frontoian.

ABENDUAK 21 astelehena

- Euskal Herria Askatularen **konzentrazioa Bordatxo aurreko** errotondan arratsaldeko 20.00etan.

LANPOSTUAK

- ✓ Usurbilgo AEK euskaltegiaren irakasleak behar dira. Usurbilgoak badira hobe. Informazio gehiago euskaltegiaren bertan. 372001
- ✓ Etxeko lanak egiteko eta bi neskato zaintzeko, kotxea duen neska euskaldun bat behar da. Orduetgia: astegunetan 8.30etatik 20.30etara eta larunbatetan 8.30etatik 14.00etara. Deitu 943 361195 telefonora (M^{re} Jesus) edo 929 458918 telefonora (Mikel):

OHARRAK

- ✗ Bizikleta estatiko bat soberan baduzu, nik gustora hartuko nuke. Ahal bada dohainik. Deitu 365943 edo 363230 telefonotara (Maria)

GARA EGINGO DUGU

Egin itxi ondoren, egunkari berri baten proiektu honetan lagundu dezakezu. Abenduan ere akzioak erosi edo nahi duzun dirulaguntza eman dezakezu Aitzaga elkatean.

Orduetgia:

goizez 11.00-12.30

arratsaldez 19.00-20.30

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak ikusteko aukera paregabea izango da datorren abenduaren 20an. Arratsaldeko 17.00etan hasita, Oiardo kiroldegian "Baserrian" beren azken lana aurkeztuko dute hiru pailazoek.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Usurbilgo Euskal Herrian Euskarazeko datorren abenduaren 11an **konzentrazio bat** burutuko du arratsaldeko 20.30etan frontoi atzean. 6 EHE kide epaituak izango dira euskararen eskubideak aldarrikatzeagatik. Euskara epaitua izango da denon aurrean eta ezin ditugu besoak gurutzaturik eduki, ezin gara ixilik geratu. Ostiralean denok **konzentrazioa!**



BAZKIDIE TXARTELA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: _____
 1. Abizena: _____
 2. Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

422

bazkide ditu Noauak.

Zu ere egin zaitez

bazkide

TAKOLO PIRRITX ETA PORROTXX



Usurbilgo OIARDO Kiroldegian

1998ko abenduaren 20an, arratsaldeko 5etan

TAKOLO PIRRITX ETA PORROTXX "BASERRIAN"

Lan berriaren aurkezpen emanaldia

Salgai: Orio (Arkaitz), Lasarte (Artizar),
Usurbil (Aitzaga eta Kiroldegia), Hernani (Lete)

Sarrerak: aurretik 600 pzta., egun berean 700pzta.
Antolatzailea: ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldea